



Herriko ezinduentzat egokitu dute Orendaingo Kalea baserria

ONDAREA ▶ Juan Garmendia herrikideak bere baserria eman zion Udalari, haren zaintzaz arduratzearen truke

OBRAK ▶ Lan batzuk egin dituzte, eta «gutxinaka» jarraituko dute moldaketekin; inaugurazio ofiziala egin dute ▶ 6

JAIONE ASTIBIA



«Lan txukuna» egin dute eskualdekoek Gipuzkoako Igeriketa Txapelketan

TOLOSA ▶ Usabalen jokatu dute junior eta etorkizunen mailakoek, Tolosaldea IKT-k antolatuta; orain, Espainiako Kopa jomuga ▶ 4

LEITZALDEA ▶

22 mila lagun baino gehiagok bisitatu zuten iaz Plazaolako bide berdea

Patzuergoko datuen arabera, urtez urte bisitari gehiago izaten ari da, gehienak Euskal Herria bertakoak ▶ 7

ANOETA ▶

85 lagun ari dira dantza-soka saioa buru-belarri prestatzen

Antolatzaileak «oso gustura» daude deialdiak izan duen erantzunarekin ▶ 5



Anoetarrak, entseguan, Gaztebxean. HITZA

TOLOSALDEA ▶

'Obaba', Oscar sarietatik kanpo

AEBetako Akademiak ez du aukeratu ▶ 5

XAKEA ▶

Eskolarteko Txapelketa igandean amaituko da

Gipuzkoako Ligan Tolosa-Ibarra B taldeak galdu egin zuen Eibarren aurka

ERREDAKZIOA

Iragan igandean Eskolarteko Banakako Xape Txapelketaren bigarren saioa jokatu zuten. Hala, infantilen mailan, Villabonako Jesusen Bihotzako Xabier Corredera sailkatu da lehena lortu zituen emaitzen ondorioz. Bigarren postuan, berriz, Jesusen Bihotzako Aitor Alkorta sailkatu da, eta hirugarren postura igo dena Tolosako Orixe Aimar Intxaurren izan da.

Alebinen mailari dagokionez, Berastegiko Muñagorri ikastetxeko Beñat Salbarredik jarraitzen du lehenengo postuan, baina Ibarra Uzturpe ikastolako Jon Romerok gertu-gertutik jarraitzen dio; izan ere, igandeko txapelketan lortutakoekin lehenengo postuan dagoen berastegiarrarekin puntuz berdindu du. Hirugarren Muñagorri eskolako Jon Salbarredik kokatzen da. Nesketan, lehenengo postuan Jesusen Bihotzako Ane Chaparro dago, Anoetako ikastolako Oihana Etxenikeri aurrea hartu ondoren, eta hirugarren postuan Laskorain ikastolako Sara Zabala sailkatu da. Txapelketak datorren igandean jarraituko du, hirugarren eta azken saioa jokatuko baitute, 11:00etan, Tolosako Xake elkartearen.

Bestalde, Gipuzkoako Ligan, Tolosa-Ibarra B taldeak galdu egin zuen etxean Eibarren aurka. 1,5-2,5 amaitu zuten J. Mujikak irabazi eta D. Moreauk berdindu eta gero.

FUTBOLA ▶

1-4ko garaipena erdietsi du Tolosa CFk Agurainen aurka

Sailkapeneko goiko postuetan dago kokaturik taldea; hurrengo larunbatean Eibarren aurka egingo du etxean



Joaneokan berdinketarekin amaitu zuten Agurainen aurkako. I. GARCIA

IÑIGO TERRADILLOS

Tolosa CFk Agurainen aurka jokatu zuen larunbatean eta 1-4ko garaipenarekin amaitu zen partida. Arabako taldea sailkapeneko azken postuan kokatua dago eta itxura batean markagailuari begiratuta erraz menderatu zituztela dirudien arren, partida gogorra izan zen, eta Tolosa golak egiten hasi zen arte ez zen nagusitasun garbirik nabari Agurainekoen zelaiari.

Santamaria, Lacalle, Agirrezabala, Txiki, Unai, Pablo, Romero, Orue, Regillaga, Crespo eta Gorka Blanco atera ziren zelaria Tolosaren aldetik. Hiru aldaketa burutu zituen entrenatzaileak; Cresporen ordez Prados atera zen 55. minutuan,

Orueren ordez Ekaitz 70. eman eta Lacalleren ordez Eneko 90. minutuan.

35. minutua iritsi zen arte ez zuten baloirik sare barruan sartu. Orue izan zen kórner batetik buruz gola egin zuena. 0-1ekoa zen. Ordurarte bi taldeek izan zituzten aukerak, baina ez bata eta ez besteak ez zuten asmatu. Bi minutu baino igaro ez zirenean etorriko zen Tolosaren bigarren gola. Kasu horretan, Gorka Blancok eginiko jaurtiketa baten ondoren iritsi zen. Eta handik 3 minutu hirugarrena egin zuten. Romero izan zen kórnerrez iritsi zen jokaldiaz baliatuz baloia sare barruan sartu zuena. 6 minuturen buruan, beraz, partida goitik behera aldatu zen.

Etxeokak saiatu ziren, eta

SAILKAPENA ▶

Taldea	puntuak
1. Sestao	45
2. Gernika	40
3. Tolosa	36
4. Baskonia	36
5. Arenas	33
6. Amorebieta	32
7. Laudio	31
8. Eibar	29
9. Beasain	27
10. EHU	27
11. Elgoibar	27
12. Lagun Onak	25
13. San Pedro	23
14. Zamudio	22
15. Santurtzi	22
16. Aurrera Vitoria	22
17. Indaustu	21
18. Aurrera O.	18
19. Gebro	18
20. Agurain	11

atsedenaldira iritsi aurretik gol bat egitea lortu zuten. 1-3ko markagailuarekin ekin zioten bigarren zatia. Eta hasi eta segituan egin zuen laugarrena Tolosak. Bandan hasitako jokaldian Regillagak erdiratu eta Blancok buruz sare barrura sartu zuen. Azken gol honekin partida erabakita geratu zen.

Hurrengoa, Eibarren aurka

Azken garaipen honekin 3. postuan da Tolosa, eta hurrengo jardunaldiari begira dago, ez baitu partida erraza. Hain zuzen ere, Eibarren aurka ariko da larunbatean. Arduradunek zaleei deialdia luzatu nahi diete egun horretan taldea animatza hurbil daitezen.

ESKUBALOA ▶

Nagusiak eta jubenilak gailendu dira asteburuan

Datorren urtean mailaz igotzeko pauso handia eman du nagusien taldeak

ERREDAKZIOA

Igande goizean Tolosako nagusien eta jubenilen mailako eskubaloitako taldekoek Usabalen jokaturako partidak garaipenarekin amaitu ziren. Nagusiek 22-21 irabazi zuten Arrasataren aurka, eta jubenilak, berriz, 24-16 gailendu ziren Bergararen aurkakoan.

Nagusien partidari dagokionez, hurrengo urtean goragoko maila batera igotzea zegoen jokoan, eta iragan astean galdu ondoren ezin zuten hutsik egin. Hala izan zen, eta taldeko arduradunek azaldutakoaren arabera, «partida bikaina izan zen eta ikusleek ederki gozatu zuten». Mika, Baena, Izagirre (2), Raposo, Gari, Azurmendi, Luixito (5), Iraola (2), Ariz, Oliden (5), J. Azpeitia (1), X. Azpeitia (1), Zabala (6) eta Casi izan ziren jokatu zutenak. Hala, puntuak eskuratu ondoren, eta gauzak ez badira asko okertzen, Tolosak hurrengo urtean lurraldekako lehenengo mailan jokatuko luke.

Nagusien norgehiagokaren aurretik, jubenilek jokatu zuten. Talde honetako jokalaririk askorentzat eskubaloian jokatzen duten estreinako aldia izan da eta asko ari dira hobetzen partidatik partidara. Garaipen berriarekin, 3. postuan sailkatu dira. Ivan, Alus, J. Ormazabal (4), Eneko (3), Malbadi, Ander (4), Jon Ormazabal, Alvaro (7), Usabiaga (1) eta Caminos (5) izan ziren jokatu zutenak.

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik



IGERIKETA ▶



Jende andana bildu zen Usabal kiroldegiko harmailetara, igerilariei arnasa emateko. JAIONE ASTIBIA

«Lan txukuna» burutu dute Gipuzkoakoan igerilari tolosarrek

Etorkizunekoak «uste baino hobeto» aritu dira eta juniorrek «marka hobetu dute»; Espainiako Kopa dute orain jomuga

NOELIA LATABURU

Pasa den asteburuan Usabal kiroldegiko igerilekua zale-tuen begiraden erdigune bilakatu zen. Gipuzkoako Igeriketa Txapelketa bere uretan lehiatu baitzen. Hala, junior eta etorkizunekoan mailako igerilariak aritu ziren eta, nola ez, Tolosak bere ordezkari izan zuen, Tolosaldea IKT-ri esker. Bere igerilariak buruturiko lanarekin «pozik eta gustura» azaldu dira arduradunak. Junior mailakoan gainean jardun dute, batetik, eta euren markak hobetu zituztela azpimarratu dute. «Gainera, datorren asteburuan neguko txapelketa garrantzitsuena jokatu dute». Guztien artean, Ion Villanueva igerilaria nabarmendu dute, bera baita «Espainiako gutxiengora gehien» gerturatu dena. Etorkizunekoari buruz, aldiz, «uste baino hobeto» aritu zirela aipatu dute.

Orokorrean, «maila altua» izan zela adierazi dute ITK-koek. «Besteak beste, Bidasako mutilek 4x200 erreleboetan eginiko Gipuzkoako errekorra azpimarratu behar da (7'52"15)». Gipuzkoarren atalean, Paula Cervantes eta Ivan Agirre aritu ziren ondoen. Hala ere, Nafarroatik C.N. Amaya tal-



Hainbat errekor lortu zituzten asteburuan igerilariak. JAIONE ASTIBIA

dea gonbidatu zuten, eta azkeneko Europako Txapelketan parte hartu duen Javier Urtasun iruindarra ere izan zen Usabalen. 100 aske modalitateko proba «zoragarri batean» 50''58ko denbora bikaina lortu zuen.

Antolaketa aldetik, «oso balantze ona» egin du elkarteak; «ez zen ezustekorik izan eta jendeak oso ondo egin zuen lan dena ongi irten zedin». Guztira, 40 lagun aritu ziren lanean kronometroarekin igerilarien denborak hartzen, aldagelak zaintzen, idazkaritzan... «Uste baino jende gehiago behar da Igeriketa Txapelketa bat antolatzeko», adierazi dute.

Eta datorren hilabetean hitzordu berri bat hartuko du Usabalek; izan ere, bertan jokatu da Espainiako Kopako bigarren mailako Txapelketa. Bertara, martxoaren 11n eta 12an, Espainiako hamabi talde mutiletan eta hamabi nesketan ariko dira, Lehen Mailara igotzeko borrokatzeko asmoz. Euskal taldeek ere txapelketan hartuko dute parte. Bardiulia da, hain zuzen ere, gipuzkoarren taldea, eta bertan Tolosaldea IKT-ko igerilariak ere ariko dira. Txapelketa honetan zurrari dituen taldeak orain helburuak; «horretarako lan gogor egin beharko dugu datoren asteetan».

GUTUN@K ▶

Tolosako bidegorria

Luis Esnaolak azaldu duen interesari erantzunez eta bere kezkekin bat eginuz, jakinarazi nahi dut Foru Aldundiak Arzabalza-Tolosa eta Altxo Azpi-Alegia bitarteko zatiak egiteko proiektua onartu zuela joan den abenduaren 27an Gipuzkoako bizikleta bideen sarea arian-arian zabaltzeko planaren barruan, eta 900.000 eurotik gorako aurrekontua ezarri duela horretarako. Bide zati hori eginda, beste hautabide bat eman nahi zaie Tolosako hegoaldeko sarbidearen eta Altxo Azpi auzoko sarbidearen arteko N-1 errepedearen bide zatia erabiltzen dutenei. Lanak Tolosa, Altxo eta Alegiako udalekin sinatutako lankidetzak hitzarmenei jarraituz egingo dira.

Dagoeneko atera dira lanak enkantera; deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da 2006ko urtarrilaren 11n, eta eskaerak aurkezteko epea otsailaren 2an bukatuko da; ondoren lanak esleitu eta abian jarriko dira. Lanak egiteko lau hilabeteko epea ezarri da.

Bigarren fasean Altxo Azpi eta Alegiako herrigunea lotuko dira eta lanak 2006an zehar aterako dira enkantera.

LUIS MARI OYARBIDE | GIPUZKOAKO GARAPEN IRAUNKORRERAKO FORU DIPUTATUA

HEZKUNTZA ▶

Hirukideko hezkuntza proiektua, gaur

Gaur, 16:00etatik aurrera, 2003an jaiotako haurren gurasoentzat hezkuntza proiektuaren aurkezpena egingo dute Jesuitinetan.

GIZARTEA ▶

Bonolotoko bigarren saria tolosar batentzat

Nafarroako etorbideko loteria administrazioak bonolotoko bigarren saria banatu zuen herenegun. Txartelaren irabazleari, bost zenbaki eta zenbaki osagarria asmatu zituenak, 58.105 euro eta 30 zentimo egokitu zaizkio. Tolosakoarekin batera, beste hiru irabazle izan ziren.

SANTA AGEDA ▶

Santa Agedan, eskean ateratzeko entsegua, gaur

Amarozko Auzo elkarteak deituta, 20:30ean egingo dute, Auzo Etxean

ERREDAKZIOA

Urtero bezala, aurtur ere Amarozko taldea eskean aterako da Santa Ageda bezperan. Usabal eta San Blas auzoetatik barrena egingo dute ibilbidea, baserriz baserri, eta azkenik Amaro auzoan bertan ariko dira kantari. Horretarako, aurrez, kantuak ikasteko, prestaketa lana egin beharko dute. Hain zuzen ere, gaur, 20:30ean, Amaro auzo Auzo Etxera —garai bateko patronatoan— biltzeko deia egin die elkarteak eskean atera nahi duten guzkiei, entseguetan parte hartzerako gonbidatuz.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411

- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaro auzo dispen.: 672637
- ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)

- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

- ▶ Garraioak.
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- ▶ Besterik.
- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurramendi egotza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

POLITIKA ▶

«Batasuna inguruaren jazarpena» salatu du Imazek

Tolosaldeko zinegotzien «jazarpenaren» atzean «mafia urbanistikoak» daudela esan du

ERREDAKZIOA

EAJ-ko EBB-ko lehendakari Josu Jon Imaz ezkor azaldu da bake prozesuaren inguruan. Radio Euskadin egindako elkarrizketan azaldu duenez, «berri onak iragartzen ari den Mesias ugari daude politikan, baina errealtatea bestelakoa da eta ez da ETaren bonbetara mugatzen». Imazek adierazi duenez, «errealtatea da egun zinegotzi asko, eta ez soilik PP eta PSOE alderdikoak, baita EAJ eta EAKoak, Aralarekoak ere, Batasuna inguruaren jazarpena bizitzen ari direla udalerriri askotan», eta, bereziki, Tolosaldea aipatu zuen.

Josu Jon Imazek gaineratu zuenez, zinegotzien «jazarpenak» ez du beti politikarekin loturarik, eta «mafia urbanistikoak eta finantzakoak» daudela adierazi zuen. «Kasu askotan interes pertsonalak eta urbanistikoak daude eta Batasunak horrelako ekintzak babesten ari da», esan zuen buruzagi jeltzaleak.

ZINEMA ▶

Oscar sarietako hautagaietatik at gelditu da 'Obaba' filma

ERREDAKZIOA

Montxo Armendariz *Obaba* filma ez dute aukeratu Oscar sarietan parte hartzeko. Bernardo Atxagaren *Obabakoak* liburuan oinarritutako filma Espainiako Zine Akademiak aukeratu zuen sari famatuetan lehiatzeko. Baina, atzo aditzera eman zuten, Estatu Batuetako zine akademiak ez du atzerriko hizkuntzan filma onenaren saria eskuratzeko lehiaturiko diren bost hautagaietan sartu. Goya sarietan ia esku hutsik gelditu ondoren —hamar ataletan lehiatzen zen eta soinu onenarena besterik ez zuen lortu—, *Obaba*-k ez du hautagi izateko aukera lortu.

IBARRA ▶

Eskean aritzeko Udalak «ez du baimenik eman»

Ibarrako hainbat lagunengandik gaur jasotako salaketa ikusita, Ibarrako Udalak jakinarazi du ez duela «inolako baimenik eman eskean ez etkez etxe, ez kaleari aritzeko». Horregatik, herritar guztiak oro har, eta bereziki adineko pertsonak gertakariaren jakinarenean gainean jartzen ditu, «baimenik gabeko pertsonen ez fidatzeko eta etxean sartzen ez uzteko». Udalak gomendioa egiten du horrelako gertakari berri duten pertsona guztiek toki agintariei zein aginte polizialeari parte eman diezaieten.

VILLABONA ▶

Fandango eta arin-arin ikastaroak

Oinkari Dantza Taldeak iazko urrian eman zion hasiera fandango eta arin-arin ikastaroari, eta bere arrakasta ikusirik, ikastaroa luzatzea erabaki dute uztaila bitarte. Ikastaroa ostegunetan burutuko dute Txermingo Jesusen Bihotza Ikastolan 20:30etik 21:30era eta dohain izango da. «Urte hasierarekin batera bigarren talde bat osatu asmoa dugu, talde hau hutsetik hasiko da fandango eta arin-arina ikasten». Interesatuek 660 13 93 80 telefonora deitu behar dute edo Txermingo Ikastolako ganbarara azaldu, ostegunetan, 20:30ean.

VILLABONA ▶

Eresargikoen gonbita Santa Ageda bezperako

Azken urte hauetako ohitura jarraituz, Santa Ageda bezperan Villabonako Eresargi abesbatzakoak kantatzen aterako dira, eta deialdi herrikoia egiten dute nahi duenari haiekin kantatzen ateratzeko. Kantak prestatzeko entsegu larbu bat egingo dute bihar, 19:00etan, herriko Kultur Etxean. Eresargi abesbatzakoek gogoratu dute kantatzen aterako direla larunbatean, hilak 4. Kantatu ondoren sagardotegira joango dira.

ANOETA ▶ KULTURA



Dantzariak asteazkenero biltzen dira Edurkako pabilioietan entseguak egitera. HITZA

IMANOL GARCIA

Aurtengo dantza-sokaren eguna gerturatzen ari da. Kaldere egunean izango da, hilaren 18an. Iaz bezala, ekitaldia Anotarrok Auzolanean plataformako kultura taldekoak antolatzen ari dira. «Oso gustura gauden jendeak deialdiari nola erantzun dion ikusita. Izan ere, inoiz baino talde handiagoa gara: 85 bat lagun dantzan. Horri gehitu behar zaizkio txistulariak, trikitilariak, sukaldariak... Talde handia bilduko gara bazkaltzeko eta lanerako», diote antolatzaileek.

Taldean adin guztietako herritarrek daude. Gazteenek 13 urte dituzte (DBH1ekoetan dago muga) eta helduek 50 urte inguruan dituzte. Neska eta mutil kopuruak antzekoak dira, baina neskek zertxobait gehiago dira. Astero egiten dituzte entseguak Edurkan. Asteazkenetan, 19:00etan, izaten dira, eta beraz, gaur izango dute berriro hitzordua.

«Giro ona»

Iaz lehenengo aldiz hartu zuen parte Maite Aizpuruak dantza-sokan. «Aurreko urtean oso ondo pasatu nuen», dio Aizpuruak eta aurtun esperientzia

85 lagun dantza-soka prestatzen

Antolatzaileak «oso gustura» daude jendeak eman duen erantzuna ikusita

errepikatuko du, baina modu berezian, atzeskulari bezala parte hartuko baitu. «Aureskulariak eta atzeskulariak urtero txandatzan joaten direla komentatu zuten antolatzaileek eta aurtun niri proposatu zidaten». Aizpuruak zeregina «konplikatu» dela dio. Agurra eta desafioa egin behar izaten dute eta beste dantzari bako bako prestaketa lan gehiago eskatzen die. Entseguetan izaten den «giro ona» eta dantza-sokaren egunean baserrietan egiten dieten «harrera beroa» nabarmentzen du.

Amaitu Urkolak ere entseguetako giro ona azpimarratzen du. DBH1 ikasten ari da

eta hamabi urte ditu, eta bere lehenengo aldia izango da parte hartzen duena dantza-sokan. «Ahaideek parte hartu zuten aurreko urtean eta oso ondo pasatzen zutela ikusi nuen», dio Urkolak. «Aurtun parte hartzea animatu naute eta oso gustura ari naiz. Lagunek-eta ere parte hartzen dute, eta parre asko egiten dugu». Txikiagoa zenean dantza ikasi bazuen ere, entsegetara joaten da axeri dantza, fandangoa eta arin-arina praktikatzera. Urkolak animoak ematen dizkie antolatzaileei: «Oso ondo ari dira antolatzen eta animatzen ditut jarraitzeko horrela lan egiten».

iragarki laburrak ▶



Andoain. 80 m²ko etxebizitza. Erabat berriua. Kanpoaldea. Iggogailuarekin. Ikuspegi ederrak.
Albiztur. Berrikuntza behar

duen zatituriko baserria. 200 m², hiru solairu. 35.000 m²ko lursaila.
Alkiza. Bi familientzako baserria salgai. Berritzeko. Informazio pertsonala.
Berrobi. 50 m²ko etxebizitza. Berriua.
Donostia. Portu-Ene. Berrituriko etxebizitza ederra. Eguzkitsua. Ikuspegi ederrak.
Elosua. Berrikuntza behar duen baserria salgai. 35.000 m²ko lursailarekin.
Irura. Laskibar aldean, eraikuntza berriko etxebizitza. Garajea aukeran.
Legorreta. Hiru hektareako lursaila. Sarbide egokia.
Lizartza. Erdi berrituriko etxebizitza.

Trastelekuarekin eta sotoarekin.
Tolosa. Zumalakarrekin, 150 m²ko etxebizitza. Egoera ezingobean. Garajea aukeran.
Tolosa. Pablo Gorosabel. Eraikuntza berria azken etxebizitza salgai. 65 m² erabilgarri.
Tolosa. Maituna zonaldearen atzealdean. Trastelekuak 8.600 eurotik aurrera. Berriak.
Tolosa. Berdura plazan. Berrituriko lokal komertziala alokairuan. Guztia erakusleino.
Tolosa. Martxan dagoen lokal komertziala salgai edo alokairuan. Informazio pertsonala.
Tolosa. Lokal komertzialak ditugu hainbat zonaldeetan.

IBARRA ▶

'Calcuta:
Begirada
zabalik', ikusgai

Atzoz geroztik otsaila 15era bitarte, Ibarrik Misio Taldeak antolatutako argazki erakusketa egongo da ikusgai Benito Izagirre kultur etxean. *Calcuta. Begirada zabalik* izeneko erakusketak «gogo-etarako gonbita» izan nahi du. «Estatistika artean galdurik geldituko ez den begirada bat, anekdotikoan trabatuko ez den begirada bat, jantzien zikintasunetik eta miseria gorritik harantzago joango den begirada bat».

IKAZTEGIETA ▶

Kiroldegiko
hainbat zerbitzu
ixtita egongo dira

Ikaztegieta kiroldegiaren teiltuaren egoera txarra dela eta hurrengo astean lanean hasiko dira, eta ezin izango dira hainbat zerbitzu erabili. Hilaren 6tik martxoaren 26ra bitarte luzatuko dira lanak. Hauexek dira itxita egongo diren aretoak: pilotalekua, KZgunea, liburutegia, medikuaren zerbitzua eta Gizarte Langilearen bulegoa. Azken bi zerbitzuak betiko ordutegiaren barne erabili ahal izango dira, baina Alegiara jo beharko dute ikaztegiatarrek.

ALEGIA ▶

Ana Ansorenaren
erakusketa, beste
astebetetz

Ana Ansorenaren erakusketa Alegiako Jubilatuen tabernan beste astebetetz egonen da ikusgai. Zeramikaz egindako margolan bereziak ikusteko aukera dago, beraz. Gorputza, arima eta garuna lotzen saiatzen den margolan multzoa: natura eta sentimenduak iruditan islatuta.


**TOLOSALDEKO
HITZA.INFO**

Eztabaida. Ikastetxeetako giroa lehengoa baino konplexuagoa da. Batzuk ikasleek gurasoengandik jasotako heziketari egotzen diote errua; beste batzuk, irakasleen profesionaltasun ezari. Gizarteak bultzatu al gaitu horretara? Zer uste duzu zuk? Nola konpondu?

ORENDAIN ▶ GIZARTEA

NEREA URBIZU

Kalea da baserri honen izena. Izana, aldiz, etxebizitza bero eta egokitu. Orendaingo herriak zori izugarriarekin egin du topo; herritar baten ezin baliotzeak egoera berri honetara eraman du baserria. Kalea baserriaz mintzo gara.

Kalea baserria herriko plazara sartu aurretik dagoen etxe handi bat da. Kanpoaldetik ere obretan daudela nabari da. Juan Garmendia orendaindarra baserri honetako jabea zen, eta adintsua izaki, ez zen momentu batean bere kasa bere burua zaintzeko gai. Horrexegatik beragatik, herriko udaletxeari laguntza eskatu egin zion: bere bizitzako azken urteetako zaintzaz arduratzearen truke, Juan Garmendiaren baserria Udalaren esku utziko zukeen. Honela egin zuten udalekoek, gizon adinduaren beharrak asetuz, eta behar zituenak emanez.

Egun tristea iritsi egin zen, ordea, Juan Garmendia zendu zenean. Baina oroimen polita gordetzen dute herrian, orain baserriaz bere egoerara iris daitekeen edozeinek goza baitezake: bakardadean eta ezintasun fisiko nabari batekin dagoenak, hain zuzen.

Izan ere, bertan egin dituzten obrak gero eta handiagoak dira: bainugela aproposa eta egokitua, sukalde argitsua eta logela bat eginak ditu dagoeneko. Ikuilua zena ere beste itxura bat hartuz joango da aurrerantzean, etxea gehiago moldatzeko, eta eman daitezkeen beharrei erantzun egokiago bat eman ahal izateko. Dena dela, proiektu serioagoa da, eta posible da eguneko zentroa egitea, edota balio anitzeko gelak egituratzea, adineko jendeari zuzendutako espazioa. Baliabideak bilatzen ari dira momentuz, eta ez dago ezer zehatzik, aukerak antzatz baitira, herriari eskaini ahal zaizkion zerbitzuen kopurua bezala.

Kalearen inaugurazioa

Abendu hasieran eman zituzten lehenengo pausoak obra hasteko. San Sebastian eguneko erabaki zuten Orendaingo Kalea baserri berria bedekintzea, eta hala egin zuten. San Sebastian ermitan ospatzen duten mezatik itzulita herritarrek pisu berria ikusteko aukera izan zuten, eta herriko apaiz Jose Inazio Eguzkitzak bedekintu egin zuen auzokideen aurrean. Honela, Kalearen inaugurazioa osatua geratu zen. Udal korporazioko lehendakari Tomas Plazaolak baserrian



Kalea baserriko komuna aproposki dago prestatuta, dutxa zoruaren maila berean. N. URBIZU

Kalea baserria, herriko edozein ezindurentzat

Juan Garmendia orendaindarrek bere baserria Udalari eman egin zion bere zaintzaz arduratzearen truke



Jose Inazio Eguzkitza apaizak Kalea baserria bedekintu zuen. N. U.

egindako lanak erakutsi egin zituen, eta baserriko ukuiluan dagoen leku handiari eman ahal zaizkion erabilerak ere baloratu zituen.

Tomas Plazaolak azaldu duen bezala, «diruarekin beheko solairu guztia moldatu egingo da, baina horretarako denbora ere behar da. Gutxi-naka joango da egiten. Beharren arabera izango da egingo dena: udaletxetik baliabideak tanteatzen ari gara momentuz. Gauza da behar duenak berehalaz erabili dezakeela jadanik egingo dena pisu-txoan».

Beharretan dagoen pertsona horrek sukaldeaz, logelaz eta komunaz goza dezake. Ez da denbora asko pasatuko honi erabilera ematen hasteko, gremioen lanen artean margoketa lanak falta baitira soilik. Kanpoaldetik, urbanizazio lanak falta dira egiteko.

Beraz, Juan Garmendia herrikideari esker, Orendaingo herriak zerbitzu berezi honetaz gozatu ahal izango du aurrerantzean.

TURISMOA ▶



Plazaolako bide berdeak ur-ixuriaren bi aldeetara dauden Leitzarari eta Larraun ere zeharkatzen ditu. J. A.

Plazaolako bide berdean 22 mila lagun baino gehiago

Patzuergoak emandako datuen arabera, urtez urte bisitari gehiago izandu du, gehienak Euskal Herria bertakoak

JAIONE ASTIBIA

«Urtez urte bisitari gehiago bertaratzten da gure eskualde honetara». Hori ondorioztatu eta egiaztatu du Plazaola Turismo Patzuergoak eta halaxe eman du jakitera orain berriro, helarazi duen 2005. urteko balantzearen bidez.

Behin urtea bukatuta, horretan egindakoaren kontuak jasotzeko tenorea ere izaten da eta horixe egin du Araitz, Basaburua, Betelu, Imotz, Irurtzun, Larraun, Lekunberri eta Ultzama udalerriekin batera Leitzako eta Aresokoak ez ezik, besteak beste bi herri hauetako zerbitzuen sektoreko hainbat establezimendu ere bazkide dituen Plazaola Patzuergoak. Eta datu onak bildu ditu. Datu hauek lau taldetan sailkatuta jaso dituzte, aditzera eman dutenez.

Alde batetik, Patzuergoko turismo bulegora zonalde honetako informazioa eskatzera gerturatutakoari buruzko bil-

keta egitea ohikoa dute: 2005ean, orotara, 15.925 lagun izan ziren egoitzan, hilabeterik jendetsuena abuztua izan zelarik, 4.205 bisitarirekin, urriek hilabetea eta otsaila izanez. Behin martxoaz gero, jende kopurua gehituz joaten da, eguraldia ere ziurragoa izaten da eta oporraldiekin bat egiten dute gailurrek.

Bertako bisitariak gehien

Argitu dutenez, zentrura hurbildu direnetatik bisitari gehienak Euskal Herrian bertakoak izan ziren iaz, aurreko bi urteetan bezala: «Aztertu ditugun azkeneko hiru urteetako datuetan, argi ikusten da bisitarien kopurua etengabe hazituz ari dela urtez urte», zioten. Zehaztu zuten, gainera, «euskaldunen artean, herrialde bertatik etorritakoak izan dira gehienak, gero Gipuzkoatik eta ondoren Bizkaitik», eta kanpotik etorritakoen artean kataluniarrak izan omen dira

oparoenak: «Bartzelonakoak, zehazki, eta gainera, abuztuak», xehatu zuten. Orohar «%13,4 igo da gure zentrura etorri diren bisitarien kopurua», eman zuten aditzera. Bisitari hauek eskualdeari buruzko informazioa nahi izaten omen dute hein handienez, eta «bide berdeari buruz eta bestelako ibilbidei buruz ere bai», zioten.

Bulegora joan ordez www.plazaola.org web-orria bisitatzen dutenak ere badira, ordea: iaz 21.914 internauta zenbatu omen zituzten.

Bestalde, zehazki, Plazaolako bide berdean izan diren bisitarien kopuruaren berri ere eman dute. Donostia eta Iruñea lotzen zituen *Tren Ttikia*-ren ibilbide berreskuratuan, aurreneko bidaia 1914ean egin zuela, hilbetezaren 19an bete ziren urteak, zenbat jende ibiltzen den ideia bat egiteko, ekokontagailua delako hori jarrita dago Lekunberriko estazio inguruan, iazko ekainaz geroztik

martxan dagoelarik. Aparailu honek bertatik oinez igarotzen direnak kontatzen omen ditu: «Lurrazpian jarrita dago eta urratsak hartzen ditu kontuan eta horren ariora oinezkoak zenbat diren memorian gordetzen duen aparailua da, gero guk informazio hori gure datu basean iraultzen dugu», azaldu zuten. Horrela, bidean zenbat lagun ibili diren «datu zehatza» jakin ahal izan dute.

Astizko kobazuloa

Bada, ekainaren erditik aurrera, «22.102 lagun igaro ziren bertatik, oinez»; izan ere, txirringaz igarotakoak zenbatzeko ez du gaitasunik. Horren ariora, patzuergotik adierazita, koaren arabera, «gutxienez beste %10 gehitu beharko litzaioke kopuru horri, birringazaleen ugaritasuna ikusita», gehitu zuten.

Patzuergoak iaz burutu zuen egitasmo berezia izan zen Astizko Mendukilo kobazuloan izan diren bisitariak ere zenbatu dituzte, bestalde. Uztailan 22an ireki zenetik, 16.497 lagun izan omen dira bertan. «20nakako taldeak sartu izan dira barrura gidatutako ikustaldiak egitera», azaldu zuten. Honen harira, jakitera eman zuten, hilbete bezala, otsailan zehar ere itxita egon den kobazuloa, «irekita egon den hilabete hauetan ikusi eta nabaritu ditugun hutsarteak eta gabeziak ezabatu eta hobekuntzak egiten ari garra», azaldu zuten Eneko Agirrek, Astizko Kobak S.M.-ko enpresa erdipublikoaren gerenteak berak. Aitatu zuenez, gainera, kobazuloaren klimatikaren aldagarritasunaren azterketa ere egiteko baliatuko dute epe hau: «Neurgailu modernoago bat ipiniko dugu barruan, jendearik ino edo gabe, bertan dagoen CO2 kontzentrazioa, hezetasuna... neurtuko dituen, eta bilduko dituen datuak jasota, kobazuloak duen berreskuratze ahalmena zehaztuko dugu», azaldu zuten. Honekin hustiaketa egokia egitea ahalbideratzeko modua zehaztea dute helburu.

Eta kobazuloaren inguruan ere beste ibilbide pare bat moldatzen ari direla eman zuten jakitera arduradunak. Horieta bat da Larraungo beste lau kobazulo elkartuko dituen, eta bestea Astitz herriatik Mendukilora oinez joateko moduan jarritzen ari direna. Martxoan berriaz irekitzerako, dena prest eduki nahi dute.

Eta han bertan muntatuta duten Lurrazpiko Eskola bertan ere hobekuntzak eginda, udaberriarekin batera zabalduko omen dute.

LEITZA ▶

Oinatz Bengoetxea, final-laurdenetan

Ostiralean, Titin III.a eta Pascual izanen dituzte aurrez aurre leitzarrak eta Ruizek

J. ASTIBIA

Eskuzko Pilotako IV. Binakako Txapelketa fase erabakiorretan sartuta dago. Aurreko asteburu honetan ligaxka bukatuta, heldu denean final-laurdenak jokatzen hasi dira.

Horrela, Bengoetxea VI.a leitzarra eta Patxi Ruizek ligaxkako azken partidua irabazi egin zuten, Gonzalez eta Apeztegia 11 tantoan utzi zituzten; eta, ondorioz, Asegarceko bikoteen taldean hirugarren gelditu ziren.

Txapelketako oinarrien arabera final-laurdenetan Aspeko bigarrenaren aurka jokatzea egokitu zaie, hots, Titin III.aren eta Pascualen aurka. Horrela, lehen final-laurdeneko jardunaldia ostiral honetan bertan, hilaren 3an, beraz, jokatuko dute, 22:00etan, Azkoitiko pilotalekuan. Eta bigarrena datorren asteburuan. Bi bikote hauek partidu bana irabaziko balute, berdinketa hausteko hirugarren bat joatu beharko lukete.

Edozein moduz, atzo eguerdiarteetan bada, lehen partidu horretarako materiala aukeratu zuten bi bikoteek eta gustura gelditu ziren, saskian bakoitzari komeni zaion materiala aurkituta, Ciprik eta Punpak jarritakoak. Bengoetxeak eta Ruizek, 103,1; 103,6 eta 103,9 gramoko pilotak berezi zituzten, itxuraz, bizixeagoak. Titinek eta Eulatek, berriz, 106,8; 106,1 eta 106 gramoko pilotak, sendoxeagoak.

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Asteburuetarako sukaldaria behar da Tolosaldeko taberna baterako. Deitu [677 32 99 34](tel:677329934).

Iturgin laguntzailea. Iturgin lanetarako laguntzailea behar da. [656 41 68 08](tel:656416808).

ALOKERA

Pisua. Abaltzisketan pisu bat alokatzen da. [645 73 45 84](tel:645734584).

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko otsailaren 1a, asteazkena ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



goizez



arratsaldez



beroena

11

hotzena

07



BIHARKO EGURALDIA



goizez



arratsaldez



ELURRA ARALARREN



Guardetxe:

gaur: bai / bihar: bai

Pagomari:

gaur: bai / bihar: bai

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurilaria, Kultura Saila

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zaintzak argizko, harpidetun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Asteasu. IX. Mendi Astea amaitzeko, astebukaera antolatuta dute hilaren 11n eta 12an Piedrafita de Jacako aterpean (Huescako Pirinioak, Espainia). Iraupen eskia edo pistako eskia egiteko edo mendira joateko aukera izango da. Izena emateko azken egunak, liburutegian. **Ibarra.** Sendi Ekintza sagardotegia zabalduko dute hilaren 11n. Parte hartzeko Zubiaurren edo Sendi Ekintzan eman behar da izena aurrez. **Tolosa.** Tolosa Bizirik herri ekimenak deituta, elkarretaratzea, *Apartheid ez. Dimisioak orain* lelopean. 19:00etan, Plaza Zaharrean.

HITZALDIAK

Tolosa. Hezkuntza proiektuaren aurkezpena egingo dute 2003an jaiotako haurren gurasoentzat. 16:00etan, Hirukide Jesuitinetan.

ZINE-KLUBA

Alegia. Robert Guediguain zuzendariaren *Marius y Jannette* filma. 21:30ean, Gaztetxean.
Tolosa. J. P. Revella eta Pablo Stoll zuzendarien *Whisky* filma. Bihar, 21:30ean, Kultur Etxean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.

IRRATIA

Txolarre Irratia (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren erreposoa, agenda, albisteak, elkarrizketak, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-19:00. *Irauli uhinak*, Gaztesareak prestatzen duen saioa, Arrosa Irrati Zentroaren eskutik.
19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
21:00-22:00. *Zaharrak berri*, Irulegi irratiak eskaintako saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.
21:00-22:30. *Bide okerretik*, Euskal Herriko musika mugimenduari buruzko saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Naturaren eragina

TOLOSA ▶ Txaro Medrano margolariak erakusketa jarri du Saikin tabernan; hamabi lan daude ikusgai, olioak eta akrilikoak



Arreta pizten du Saikineria joaten direnen artean Txaro Medranoren erakusketak. LEIRE MONTES



Tolosaldeko txokoak, Nafarroakoak, bodegoiak, loreak... Denetarikoa gaiak jorratu ditu artistak erakusgai jarri dituen hamabi lanetan. LEIRE MONTES


ERREDAKZIOA

Txikitatik liluratu izan du naturak. Eta, duela zapi bat urte, gaztetako zaletasuna berreskuratu eta naturaren txoko horiek margolanetan islatzeari ekin zion. Orain, egindako hainbat lan Tolosako Saikin tabernako hormetan zintzilikatu ditu Txaro Medranok.

Nabaskozen (Nafarroa) jaiotakoa da Medrano, baina Tolosako Amaro azoan bizi da aspaldi. Kultur Etxeko tailerretan izena eman zuen bere zaletasunean trebatzeko, eta eskualdeko hainbat txokotan bere lanak erakusgai jartzen ari da pixkanaka. Maxi Eroskiko tabernan jarri zuen erakusketa duela bi urte, eta iaz Alegiako Jubilatuen tabernan.

Saikinen 12 lan ditu ikusgai, olioak eta akrilikoak, denetarikoa gaiak jorratzen dituztenak. Hori bai, present da ia guztietan naturaren eragina. Hilaren 10a arte egongo da bertan margolanak ikusteko eta erosteko aukera.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Zorionak Demetri.
Etxeoen partetik.



URTE ASKOAN
Garazi Susin Markos.
Gaur 2 urte. Zorionak familia guztiaren partetik.

HITZA, zorion agurren

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, **tartea** ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!